

Donostian, 2018ko urtarrilaren 7an

## IDAZKARI NAGUSIARI

### KONTROL MOZIOA, INTXAURRONDOKO ED.1.1 g.00 LURSAILA ESLEITZEKO PROZEDURA DELA ETA

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martin Garin naizen honek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluan oinarrituta, KONTROL MOZIO hau aurkezten dut, abenduan Ogasun Batzordean Baratzategi IN.07 HA eremuko ED.1.1. g.00 lursaila emakidan emateko prozeduraz egindako interpelazioaren ondorioz.

## JUSTIFIKAZIOA

Abenduan, Domínguez-Macaya Ogasuneko zinegotzi ordezkariari interpelazio bat egin genion, Baratzegi IN.07 HA eremuko jabari publikoko ED.1.1. g.00 lursaila modu pribatiboan erabiltzeko prozedura irekiari buruz.

Gure interpelazioari erantzutean zinegotzi ordezkariak adierazi zuenez, ikastetxe bat eraikitzeko lursail hori ematea justifikatuta dago, une honetan, komunitateak bestelako premiarik ez izateagatik; halaber, Hirigintzaren txosten tekniko bat aipatu zuen, lursail horretan udalak ezer ez duela garatu eta etorkizunean ez duela garapenik aurreikusten adierazten duena.

Halaber, zinegotzi ordezkariak Sustapen Baltzuaren beste dokumentu bat aipatu zuen, eta, hartan, justifikatzen da ezen atzerriko talentua hirira erakartzeko hezkuntza eskaintza zehatz bat behar dela; argudio "bitxia", hirian dagoen hezkuntza eskaintza zabala dela kausa.

Emakidaren 70 urteen inguruko erantzuna ere ez zitzaigun onargarri iruditu: "hobe zerbait egotea ezer ez egotea baino areago". Kontua ez da zerbait egotea, zerbait hori zertan den argitzea baizik. Gogoan izan behar dugu Donostiako herritarren arazo nagusietako bat etxebizitza bat eskuratzea dela, alokatzeko eta erosteko prezioak oso garestiak baitira. Gogorarazi behar da, halaber, legealdi honetan, udal Gobernuak etxebizitza babestuetarako lizentzien % 52 baino ez duela eman, eta,

ordea, etxebizitza librea % 76,48 dela. Beraz, titulartasun publikoko lurzorurako lortu nahi duten erabilera hori donostiarren benetako beharrei hobekien erantzuten diena den aztertu beharko litzateke.

Gainera, administrazio baldintzen orrien arabera, jabari publikoko lursailaren gainean eraikitzea aurreikusten duten eraikina titulartasun pribatuko eraikina da, eta, era berean, multzo hori erabiliko den erabilera ikastetxe pribatua izango da, hortaz, Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko Arau Orokorretako 9.6 eta 30.2.C artikuluetan eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 35., 53. eta 61. artikuluetan ezarritakoaren arabera, emakidaren pleguan gauzatu nahi duten den eraikigarritasuna hirigintza eraikigarritasuna da, irabazizkoa; azken batean, eragiketa hori ezin da arautu plan berezi baten bidez, agirian nahi bezala, baizik eta Plan Orokorra aldatuta.

Horregatik guztiagatik, honako hau aurkezten dugu

#### KONTROL MOZIOA

Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio geldiarazteko Baratzegi IN.07 HA eremuko jabari publikoko ED.1.1. g.00 lursaila modu pribatiboan erabiltzeko prozedura, alde hartan epe ertain eta luzean zein behar dagoen argitzeko azterketa bat egin eta Hiri Antolamendurako Plan Orokorra aldatu arte.

Sinatua: Amaia Martin Garin,  
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.